



Josu Agirre Goitia
Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Jaun hori,

Dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzeari buruzko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan otsailaren 5ean, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzeari buruzko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineke eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 10.36 artikuluan xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du kirol arloan.

Eskumen horren babesean onartu zen ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. Bere 4.2.q) artikulua arabera, autonomia erkidegoko erakunde komunei dagokie dopatzea aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea.

Orobat, gerora ekainaren 21eko 12/2012 Legea, Kiroleko Dopinaren aurkakoa, onartu zen.

2013. urtean Dopinaren aurkako IV. Mundu Konferentzia egin zen Hegoafrikan, eta Dopinaren aurkako Kode berria onartu zen. Kode honetara egokitzeko xedez, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bidez hainbat aldaketa egingo dira ekainaren 21eko 12/2012 Legean.

Lege Aurreproiektuak artikulua bakarra du, 27 atal bilduz barruan, xedapen iragankorra eta azken xedapena. Aldaketak eragingo ditu ekainaren 21eko 12/2012 Legean, hizkuntzen erabileraren ikuspegitik ondoriorik gabekoak izanik.

Bestalde, moldatuko den ekainaren 21eko 12/2012 Legean badago hizkuntza aipamenik, 13. artikulua (Kontrolen bermeak eta legezko ondorioak) zortzigarren paragrafoaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak informazio eredu normalizatu bat ezarriko baitu euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, kontrolak jakinarazteko, dopin kontroletan laginak hartzeko eta hartutako laginak dagokion laborategira bidaltzeko.

Ekainaren 21eko 12/2012 Legearen I. kapituluak xedapen orokorrak jasotzen dira (1-11 artikulua), II. kapituluak dopin-kontrolak arautzen dira (12-19 artikulua), III. kapituluak dopinari buruzko diziplinaren eta administrazio-zehapenaren araubidea (20-40 artikulua), IV. kapituluak prebentzio-neurriak (41-45 artikulua), V. kapituluak dopinari buruzko datuen araubidea (46-48), eta VI. kapituluak nazioarteko kirol-federazioak eta nazioarteko eremuan kirol-jarduera arautzen duten gainerako erakundeak (49-52). Azkenik zortzi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea eta bost azken xedapen daude.

Halere, Lege Aurreproiektuak euskararen erabilera normalizatzeari begira eragin hobea izan dezan, proposamen hauek egiten ditugu:

b.1- Aintzat hartu behar dugu ekainaren 21eko 12/2012 Legean jasotakoaren ondorioz pertsona fisikoek eta pertsona juridikoetako ordezkariak harremanak izango dituztela herri administrazioekin, 10.2 artikulua berridatziaren arabera kirol arloan eskumena duen Jaurlaritzako sailari atxikitako Dopinaren aurkako Euskal Agentziarekin, eta Euskadiko kirol federazioekin. Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua). Halaber, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak xedatzen du federazio horiek euskara eta gaztelania erabili behar dituztela (25.1, 65.3, 67.2, 69.3, 165., 166., 167 artikulua).

Beraz, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 21eko 12/2012 Legean xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege honen ondorioz herri administrazioarekin, Dopinaren aurkako Euskal Agentziarekin eta Euskadiko kirol federazioekin dituzten harremanetan, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoetako ordezkariak euskara eta gaztelania, ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

b.2- Zentzu berean, ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 8. artikuluan kirolarien eskubide batzuk zerrendatzen dira, eta egokia izango litzateke jasotzea, dopin kontroletan informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea dutela, eta bietako nahi dutena erabili ahal izango dutela.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 8. artikuluan idatz zati berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Dopin kontroletan, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko, eta nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea.

b.3- Ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 11.1 artikuluan Aholku Batzordea arautzen da, erakunde publiko ezberdinen eta arlo pribatuko ordezkariak osatuta. Batzorde horren osaera anitza ikusita, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea aintzat hartuta, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatu beharko litzateke.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 11.1 artikuluan idatz zati berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki hauekin:

-Aholku Batzordeko kideek batzarretan euskara eta gaztelania erabili ahal izango dute, eta biak erabiliko dira deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta beste idazkietan.

b.4- Ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 42. artikuluan kiroleko dopinari buruzko informazio-sistema arautzen da. Bertan adierazten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ezarriko duela, kirol agintari, profesional, kirolari eta herritarrei oro har informazioa eskaintzeko xedez. Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8. artikulua aintzat hartuta, informazio-sistema horrek euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko du informazioa.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 42. artikulua osatzeko proposatzen dugu, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dela bermatzeko.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2015eko otsailaren 11n.

Ángel Lobera Revilla
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatze zuzendaria